

PRENTSA-OHARRA

Argazki-rallya egingo da larunbatean, Iruñean, hiriaren irudi eraberrituenak hartzeko asmoarekin

Edonork izena eman dezake lehiaketa honetan, zeinak 1.000 euro inguru banatuko baititu saritan

Argazki-rallyaren 20. edizioa egingo da larunbatean, Iruñean, *Zer izan zen hau?* izenburupean. Civivox sareak antolatutako lehiaketa da, herritarrek hiriak azken urteetan jasan dituen aldaketak erretratatu ditzaten. Argazki-rallya 09:00etatik 14:00etara egingo da, Juslarrocha Civivoxetik abiatuta. Parte hartzeko izena eman beharra dago, Civivox sareko edozein zentrotan abuztuaren 25era arte (ostirala), edo rallyaren egunean bertan.

Parte-hartzaileek Juslarrocha Civivoxera joan beharko dute, abuztuaren 26an, larunbatearekin, goizeko 09:00etan, rallya egiteko jarraibideak jasotzeko. Jarraibideetan azalduko da zein diren lekuko-argazkia eta kontrolekoa, bai eta zertan dautzan ere bete behar dituzten hamar probak. Lekuko-argazkia eta kontrolekoa derrigorrezkoak dira, baina ez dute punturik ematen.

Rallyaren gaia honako hau izango da: hiriko 10 erreferentzia, eraikin edota kokaleku aukeratu behar dira, guztiak ere azken urteotakoak, berrituak, zaharberrituak, eraldatuak, eta hiriaren beste irudi bat ematen dutenak. Ez da argazki bat baino gehiago onartuko proba bakoitzeko. Parte-hartzaileek ziurtatu beharko dute kamerako txartela hustu dutela rallyaren ibilbideari ekin baino lehen.

Edizio honetan, sariren bat irabazi ahal izateko, 10 probetatik gutxienez 8 bete beharko dira zuzen. Guztira, lehiaketak 1.000 euro inguru banatuko ditu saritan. Bilduma hoberenarendako lehen sari bat egongo da: 300 euroko txartela, argazkigintza-materiala eskuratzeko. Bilduma hoberenarendako bigarren saria 200 euroko txartela da, argazkigintza-materiala eskuratzeko; eta hirugarrena 150ekoa.

Lehiakide gazteendako sari bat ere badago, 12 eta 17 urte bitartekoendako: 200 euroko txartela, argazkigintza-materiala eskuratzeko; eta epaimahaiaren saria, 120 euroko txartela, rallyan hartutako argazki nabarmenenarentzat. 7 eta 11 urte bitarteko parte-hartzaileen artean argazki-kamera digitala zozketatuko da.



Epaimahaia argazkilari profesionalek eta Iruñeko Udaleko teknikariek osatuko dute. Epaimahaiak aukeratutako argazkiak eta bildumak Sanduzelaiko Civivoxean egongo dira ikusgai irailaren 29ra arte, ostiralarekin. Erakusketan, larunbateko jardueran parte hartu duten guztien argazkia izango da ikusgai. Saritu gabeko lanak urriaren 25etik aurrera jaso ahalko dira, Sanduzelaiko Civivoxean. Saritutako lanak, aldiz, Iruñeko Udalaren jabetzakoak bilakatuko dira.

Iruñean, 2017ko abuztuaren 21ean